



LAGUNTZA-TRESNAK EMAKUME BASERRITARRENTZAT

LAGUNTZA-TRESNAK EMAKUME BASERRITARRENTZAT

Bizkaiko Foru Aldundiak lan-mahai bat sortu du Etxaldeko Emakumeak, Landa XXI eta Saskia elkartekin batera. Helburu nagusia Bizkaiko emakume baserritarren errealitatea ezagutzeko eta laguntza-tresna berriak sustatzea da.

Dokumentu honetan jasotzen dira emakume baserritarrek jaso ditzaketen laguntza nagusiak, ekintzailtza-idea izan dutenetik, beren lan-ibilbidea bukatzen dutenera arte. Fase bakoitzak neurri bereziak ditu. Neurri horiek erronka nagusiei erantzun eta bizi-kalitatea hobetzen dute, bai lanean bai landa-ingurunean.

Espero dugu informazio hori lagungarri izatea, bai eta aurrera egiteko baliagarri izatea gure lurraldeko nekazaritza-sektorea indartzeko eta emakume baserritarrek beren egunerokoan duten ezinbesteko zereginari balioa emateko.



GAZTEA ZARA ETA BIZKAIKO NEKAZARITZAREN SEKTOREAN SARTU NAHI DUZU?



GAZTENEK

Gaztenek Euskadiko nekazaritzaren sektorean belaunaldi aldaketa sustatu nahi duen programa da. Hala, bere helburu nagusia gazteak laguntzea da, beren nekazaritzako ustiategiak sartzeko eta sendotzeko prozesuan. Gaztenek programak aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu gazte profesionalak nekazaritzaren sektorean sartzea errazteko.

NEKAZARI GAZTEAK NEKAZARITZAKO USTIATEGIETAN EZARTZEKO DIRULAGUNTZAK

- **Nori zuzenduta dago?**
18 eta 41 urte arteko pertsoneri.
- **Erakunde arduraduna:**
Eusko Jaurlaritza, Hazi.
- **Informazio gehiago hemen:**
945 003 240 / hazi@hazi.eus

NEKAZARITZA LURREN FUNTSA

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Lurren Funtsa tresna bat da, nekazaritza-lurrak modu egokian babestu eta kudeatzeko asmoa duena. Tresna horren helburu nagusia lur horiek nekazaritza-erabileran mantentzen direla bermatzea da eta hiri-eremu bihurtzea edo bertan behera uztea saihestu nahi du. Horrela, nekazaritza-jardueraren jarraipena ziurtatu eta landa-paisaia babesten da. Funts horrek nekazari berriei lurra eskuratzen laguntzen die eta aldi berean Bizkaiko nekazaritza-sektorearen iraunkortasuna babesten du.

- **Nori zuzenduta dago?**
Nekazaritza-jarduera zabaltzeko edo garatzeko lurra behar dituzten pertsoneri.
- **Erakunde arduraduna:**
Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Informazio gehiago hemen:**
<https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/6639>

EKINTZAILEENTZAT EGONALDI PRAKTIKOAK SUSTATZEN DITUZTEN ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK


Laguntza-programa honen helburu nagusia da pertsonak nekazaritza-sektorerara eta balio-kateko enpresetara hurbiltzea, ekiteko eskaintzen dituzten aukerak erakutsiz. Nekazaritza-enpresen edo nekazaritzako elikagaien enpresen berezko jardueren bidez, ekintzaileek sektore horren kudeaketari, funtzionamenduari eta errealitateari buruz ikasiko dute.

- **Nori zuzenduta dago?**
Gazteak prestatzeko asmoa duten nagusiki nekazariak diren pertsoneri.
- **Informazio gehiago hemen:**
<https://hazi.eus/es/ayudas-a-empresas-que-fomentenestancias-practicas-para-personas-emprendedoras/>

NEKAZARITZAKO TEST GUNEA

Nekazaritzako test gunea programa bat da, sektorean agente berriak sartzeko prozesu mailakatuak errazten dituena. Hala, prestakuntza eta enpresaren arteko etapa bat da. Etapa horretan ekintzaileak bere ekoizpen- eta merkataritza-eredua entseatu dezake, instalazioak, laguntza integrala eta lege-estaldura ematen diren lursail batean. Bizkaian, oraingoz, Haztegiko nekazaritzako test gunea dago (Berriz, Durangaldea).

- **Nori zuzenduta dago?**
Nekazaritza-sektorean instalatu aurretik beren jarduera propioa esperimentatu eta garatu nahi duten trebatutako gazteei.
- **Informazio gehiago hemen:**
<https://durangaldeaelikadura.eus/es/haztegia/>



LANEAN JARRAITZEN DUEN EMAKUME BASERRITARRA ZARA ETA ZURE NEKAZARITZA-JARDUERA HOBETU NAHI DUZU?



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO NEKAZARITZA-USTIATEGIETAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK

Laguntza horien helburua nekazaritzako ustiategiak hobetzea da eta, teknologia berriez baliatuz, nekazaritzako ustiategi horiek eraginkorragoak eta produktiboagoak bihurtu nahi dira, ingurumena zainduz, laneko segurtasuna eta animalien higiena hobetuz, produktibitatearen kalitatea handituz eta nekazaritza-jardueren dibertsifikazioa areagotuz.

- **Nori zuzenduta dago?**

Nagusiki nekazariak diren pertsona fisiko eta juridikoei, nekazaritzako ustiategien titular dinenak.

Nekazaritzako ustiategiei, zeinetan titularrak ez diren nagusiki nekazariak. Pertsona fisikoek nahiz erakunde asoziatiboek aurreko urteko zergetan nekazaritzako diru-sarrerak aitortu izana eta ustiategiaren tamaina ez izatea 0,5 NLU baino txikiagoa.

- **Erakunde arduraduna:**

Bizkaiko Foru Aldundia.

- **Informazio gehiago hemen:**

<https://gazteak.bizkaia.eus/es/-/bizkaiko-lurralde-historikoko-nekazaritza-ustiategietan-inbertsioak-egiteko-laguntzak>



LANEAN JARRAITZEN DUEN EMAKUME BASERRITARRA ZARA ETA UNE PUNTUALETAN BESTE PERTSONA BATEN LAGUNTZA BEHAR DUZU?



ORDEZKAPENAK ETA NEKAZARITZAKO ASEGURUAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO NEKAZARITZAREN SEKTOREARENTZAKO DIRULAGUNTZAK, NEKAZARITZAKO USTIATEGI ETA ASEGURUETAN PERTSONAK ORDEZKATZEKO

Bizkaian, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien arduradunak ordezkatzeko dirulaguntzak daude, nekazaritzako sektorean bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko. Horrek esan nahi du gaixotasun, amatasun, opor edo asteko atsedenen kasuetan nekazariak ordeztuak izan daitezkeela.

- **Nori zuzenduta dago?**
Nagusiki nekazariak diren pertsoneri.
- **Erakunde arduraduna:**
Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Informazio gehiago hemen:**
<https://gazteak.bizkaia.eus/es/-/nekazaritzako-ustiategietan-eta-aseguruetan-pertsonak-ordezte-aldera-nekazaritzaren-sektoreari-dirulaguntzak>

EMAKUME BASERRITARRA ZARA ETA NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN (NPB) DINARRIZKO LAGUNTZAK JASO NAHI DITUZU?



NPB-AREN LEHEN EUSKARRIAREN LAGUNTZAK ORDAINKETA BAKARREAN

Azalera landatuaren edo larrerako erabilitako azaleraren arabera diren zuzeneko laguntzak.

MENDI-NEKAZARITZAKO EREMUETAN ETA BESTELAKO EREMU BEHARTSUETAN NEKAZARITZA-SEKTOREKO KOMPENTSAZIO-LAGUNTZAK

Laguntza horien helburua da nekazaritza-lurra erabiltzen jarraitzea, horrek landa-komunitate bideragarriak mantentzen lagunduko baitu. Gainera, nekazaritza-sistema iraunkorrak sustatzen dituzte, ingurumena zaintzea oinarri izanda. Landa-eremua zaintzea eta landa-komunitateak laguntzea dute ardatz. Azkenik, nekazariak konpentsatzen dituzte desabantaila naturalak dituzten eremuetako produktibitate txikiaren ondoriozko diru-sarrera txikiengatik.

10. NEURRIA NEKAZARITZA INGURUMENA ETA KLIMA

Neurri horien barruan sartzen dira nekazariak edo nekazari-taldeak konpentsatzeko laguntzak, beren nekazaritzako ustiategietan eta beste eremu batzuetan borondatez nekazaritza-ingurumeneko eta klimako jarduerekin lotutako konpromisoak hartzen dituztenak.

11. NEURRIA: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Neurri honen bidez, nekazarietzako edo nekazari-taldeentzako laguntzak ezartzen dira, nekazaritza ekologikoko praktikak eta metodoak ezartzeko edo mantentzeko konpromisoa hartzen dutenak.

- **Nori zuzenduta dago?**

Nagusiki nekazariak diren pertsoneri edo laguntza horiek jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten nekazaritzako ustiategi bat dutenei.

- **Erakunde arduraduna:**

Bizkaiko Foru Aldundia.

- **Informazio gehiago hemen:**

Jarri harremanetan dagokion udalaren auzo-bulegoarekin.

BESTE LAGUNTZA BATZUK

Nekazaritza sektorea babesteko beste laguntza batzuk ere badaude. Laguntza horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan udalaren auzo-bulegoekin.

- **Informazio gehiago hemen:**
94 406 68 70 eta 94 406 68 69
<https://www.bizkaia.eus/es/atencion-agricultura>
- Bizkaiko Lurralde Historikoko abeltzainen talde eta elkarteentzako laguntza ekonomikoak abereen osasunari lotutako programak garatzeko.
- Orkatzak eta basurdeak eragindako kalteengatikozuzeneko laguntzak.
- Erlezaintza sustatzeko dirulaguntzak.
- Basafaunak eragindako kalteetatik nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak hobeto babesteko dirulaguntzak.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza zerbitzuetan prestakuntza praktikoa egiteko hainbat beketarako deialdia.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza-sektoreko ekoizleen elkarteentzako laguntzak.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan azpiegiturretan eta baso-eremuen garapenean inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko dirulaguntzak.
- Bizkaiko titulartasun publikoko mendietan dauden larreak elkarrekin kudeatzen eta aprobetxatzen dituzten abeltzainen elkarteentzako dirulaguntzak.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko arraza garbien abeltzainen elkarteentzako eta abeltzainen elkarte sektorialentzako laguntza ekonomikoak.

BA AL ZENEKIEN EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN, ARRANTZAREN ETA BASOEN INDUSTRIAK ERALDATZEKO ETA DIGITALIZATZEKO LAGUNTZAK DAUDELA?



LEHIATU PROGRAMA

NEKAZARITZAKO, ELIKAGAIGINTZAKO ETA ARRANTZA ETA AKUIKULTURATIK ERATORRITAKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO, GARATZEKO ETA MERKATURATZEKO LAGUNTZAK

Laguntza horiek nekazaritzako, elikagaigintzako eta arrantza eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko laguntzak dira.

- **Nori zuzenduta dago?**

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuei: nekazariak edo nekazari-taldeei, nekazaritza-kooperatibei edo establezimendu produktiboa duten nekazaritzako elikagaien enpresei, baldin eta produktuak eraldatzen, garatzen edo merkaturatzen badituzte nekazaritzako, basogintzako, arrantzako eta akuikulturako produktuetatik abiatuta.

- **Erakunde arduraduna:**

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila.

- **Informazio gehiago hemen:**

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/programa-lehiatu-inversio-n-2024/web01-tramite/es/



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ELIKAKATEA ETA ZURAREN KATEA DIGITALIZATZEKO LAGUNTZAK

Laguntza honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien eta zuraren industria digitalizatzea da, lehiakortasuna hobetzeko. Hainbat arlo ditu hizpide; sistema digitalen inplementazioaren bitartez enpresei digitalizatzen hasten laguntzea, 4.0 teknologiarekin fase aurreratuan daudenei laguntzea; eta industria horietan eragina izango duten proiektu estrategikoak sustatzea eta ganaduaren kudeaketan teknologia berriak aplikatzea.

- **Nori zuzenduta dago?**
Enpresei, elkarteei, enpresa-taldeei, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei eta elikadura- eta zur-kateko ondasun-erkidegoei.
- **Erakunde arduraduna:**
Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
- **Informazio gehiago hemen:**
https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2024/digitalizacion-de-la-cadena-alimentaria-y-de-la-madera/web01-tramite/es/



BA AL ZENEKIEN 2015. URTETIK EXISTITZEN DELA EUSKADIN EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUA?



EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUA

Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko Legearen helburu nagusia orain arte nekazaritza-sektorean parte hartu duten emakume guztien lana ikusaraztea da eta honako helburuak betetzeko neurri zehatzak proposatzen ditu:

1. Nekazaritza-sektorean emakumeen kontratazioa bultzatzeko.
2. Emakume nekazariak ustiatzearen titulartasuna eskuratzeko.
3. Nekazaritzaren eremuko erabaki-organoetan emakumeen presentzia bermatzeko.

Horri lotuta, honako laguntza hauek ere badaude: **Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko laguntzak.**

- **Erakunde arduraduna:**
Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
- **Informazio gehiago hemen:**
https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2024/ema-2024-impulso-igualdad/web01-tramite/es/



BA AL ZENEKIEN TITULARTASUN PARTEKATUAK JURIDIKOKI ONARTZEN DUELA GENERO-BERDINTASUNA NEKAZARITZA-ENPRESETAN?




TITULARTASUN PARTEKATUA

Genero-berdintasunaren printzipioan oinarrituta, emakume nekazariak nekazaritzako ustiategiaren titulartasuna eskura dezaten sustatu nahi da, titulartasun hori banakakoa, partekatua edo asoziatiboa izan daiteke. Horri esker, merezi duten errekonozimendu sozial, ekonomiko eta politikoa lor dezakete.

Titulartasun partekatua honako bi kasuetan soilik balio du: **titularren arteko ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko lotura**. Ez du balio beste formula batzuetarako.

Figura hori sustatzeko asmoz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriotik zuzeneko laguntza-lerro espezifiko bat dago horri heltzen dioten ekimenetarako.

- **Nori zuzenduta dago?**
Titularren arteko ezkontza edo izatezko bikotearen lotura duten nagusiki nekazariak diren pertsonen.
- **Erakunde arduraduna:**
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.
- **Informazio gehiago hemen:**
https://www.mapa.gob.es/es/desarrollorural/temas/igualdad_genero_y_des_sostenible/titularidad_compartida/Subvenciones%20directas%20a%20las%20explotaciones%20agrarias%20de%20Titularidad%20Compartida.aspx



EKINTZAILETZA ETA FORMAKUNTZA

Euskadiko landa eta enpresa-garapenari laguntzeko esparruan, tokiko ekonomia indartzeko eta dinamizatzeko ekimenak eta baliabideak daude.

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

<https://fpe.hazi.eus/listado-formaciones/todas/?q=%>

ONEKIN! PLATAFORMA

Euskadiko elikaduraren, zuraren eta landa- eta itsasertz-garapenaren balio-kateko eragile guztien topagunea.

<https://onekin.eus/>

OSTEGUN EKINTZAILEAK

Esperientziak, kezak eta laguntza partekatzen diren aurrez aurreko topaketak dira, pertsonen arteko trukearen eta HAZIk bultzatutako sare baten bidez gure enpresak indartzeko.

KABIA

Komunitatean ekiteko sarea.

<https://kabia.hazi.eus/>

GEROA

"GEROA" programa arreta integrala eta pertsonalizatua ematen duen zerbitzua da. Hala, negozio- edo dibertsifikazio-idea bat duten ekintzaileei zuzenduta dago, Euskadiko landa- edo itsasertz-eremu batean kokatzen den edozein sektore ekonomikora bideratzen den ideia, hain zuzen.



BIZKAIKO EMAKUME BASERRITARRA ZARA ETA PROIEKTU BAT BULTZATU NAHI DUZU ZURE LANDA-INGURUNEAN?

LEADER PROGRAMA

LEADER laguntzak landa-garapena babesten duten dirulaguntzak dira eta bizi-kalitatea hobetzen duten eta landa-eremuetan hazkunda ekonomikoa sustatzen duten proiektuak bultzatzen dituzte. Laguntza horiek landa-eremuan berrikuntza, iraunkortasuna eta enplegu-sorkuntza sustatzen duten enpresa txikiei, ekintzaileei eta proiektu komunitarioei zuzenduta daude.

- **Erakunde arduraduna:**
Landa Garapenerako Elkartea.

- **Informazio gehiago hemen:**

Jarri harremanetan dagokion Landa Garapenerako Elkartearekin.
https://www.euskadi.eus/web01-a2lanits/es/contenidos/informacion/dr_direcciones_bizkaia/es_9730/index.shtml

Enkarterrialde LGE

☎ 94 610 95 90
✉ enkarterrialde@enkarterrialde.eus
🌐 www.enkarterrialde.eus

Lea Artibai LGE

☎ 94 616 90 88
✉ landagarapena@leartibaifundazioa.eus

Gorbeialde LGE

☎ 94 631 55 25
✉ gorbeialde@gorbeialdea.com
🌐 www.gorbeialdea.com

Urkiola LGE

☎ 94 620 36 11
✉ urkiola@landagarapena.eus
🌐 www.urkiolalandagarapena.eus

JataOndo LGE

☎ 94 615 66 12
✉ jataondo@jataondo.org
🌐 www.jataondo.org

Urremendi LGE

☎ 94 625 76 09
✉ urremendi@urremendi.org
🌐 www.urremendi.org

EMAKUME BASERRITARREN JARDUERETAN PARTE HARTZERA ANIMATZEN BAZARA, HONAKO HAUEK DIRA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN BATERA LAN-MAHAIAN PARTE HARTUKO DUTEN HIRU ELKARTEAK



Emakume baserritarren, landa-eremuko emakumeen eta elikadura-subiranotasunaren aldeko emakume militanteen talde irekia gara. 2014an talde gisa hasi ginen, eta 2015ean talde eragile bat sortu zen Bizkaian. Urte hauetan, gure lanaren zati handi bat izan da elkar ezagutzea, elkar laguntzea eta elikagaiak ekoizten dituzten emakume gisa dugun egoerari buruz gogoeta egitea. Gainera, diskurtso bat eraikitzen ibili gara, biltzen gaituena eta geurea sentitzen duguna.

Harremanetarako posta elektronikoa:

etxaldekoemakume@gmail.com



Landa-eremuko emakumeen elkarte bat gara eta landa-ingurunean bizi garen emakumeak edota lehen sektoreko profesionalak gara. Lan egiten dugu, batez ere, landa-eremuko emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa lortzeko, landa-eremuko emakumeen aurkako genero-indarkeria desagerrarazteko eta landa-eremuko emakumeen bizitzako eremu guztietan berdintasuna lortzeko.

Harremanetarako posta elektronikoa:

emakumeak@landa21.com



Bizkaiko landa-inguruneko emakume enpresariak eta ekintzaileak biltzen dituen elkarte gara. Emakumeentzako topagune eta laguntza-gune gisa hasi ginen, esperientziak partekatze eta elkarrekin hazteko. Landa-inguruneko enpresari eta ekintzaile garen aldetik, emakumeok erronka paregabeegi egin behar diegu aurre. Horregatik, etengabeko laguntza eskaintzen dugu aldaketetara egokitzeko eta gure negozioen eraginkortasuna hobetzeko. Lan egiten dugu, batez ere, emakumeek tokiko ekonomiari egiten dioten ekarpen baliotsua ezagutarazteko eta ikusarazteko.

Harremanetarako posta elektronikoa:

info@saskia.eus

